

*Antxina, baserritarak garia zér zan ere ez ekién denporan,  
basajaunak ogia jaten ei eben.*


*Behin, Samartintxo mutil argiak  
basajaunakana joan, gari garau batzuk ostu  
eta erein egin ebazan.*

*Baina, ogia egiteko garia urun bihurtu behar...  
eta garia eihoko egin behar. Garia eihoteko, barriz, errotea behar.*


*Errotea zelan egin?  
Handik, hortik eta hemendik basajaunei sorotz eginda,\*  
ibili ta ibili... Samartintxok lortu egin eben errota bat egitea.*

*Ta orduan,  
—Gari garaia\*heldu daitenean —esan eben—  
ebagi, azao edo eskutak\*egin, jo,\*garbitu  
eta zorroetan sarturik errotara eroango joat.  
Errutan gero, eihoko. Eihotakoan, urunari zahia\*kentzeko  
eralgi\*egingo joat galbaean.\*Eta gero, etxearen,  
azpiran edo oremahaian,\* uruna ta uraz oreá\*egin, jagiten\*itzi,  
eta labantzua\*eginik, erre egingo joat eta ogia jan gero.*

*Heldu zan ba udea; gariaren garaia.  
Eta Samartintxok garia errotara irago\*eban esan ebanez.  
Eta errotea indarrean ipini\*eban.  
—KLIN-KLON, KLIN-KLON...  
Samartintxo, pozik. Baina,  
—KLIN-KLON... KLASK! —egin eutsan halako baten.*



**klin-klon... klask!**



\* sorotz egin = acechar  
\* garaia = tiempo, época, sazón  
\* azao, eskuta = fajo, gavilla

\* (garia)jo = trillar  
\* zai = salvado  
\* eralgi = cerner, tamizar, cribar

\* galbae = bae, baia, cedazo, tamiz  
\* azpira, ore-mahaia = amasadora  
\* oreá = masa, pasta

\* jagi = fermentar  
\* labantzua = hornada  
\* irago = acarrear

—Ai ene! —esan eben—. Ausi egin dök ardatza!\*

—Ardatza ausi? —inotsen danak—  
Aretxaz egindako ardatza apurtu?

—Bai, aretxa zur\*gogorra dok izan baina apurtu egin dök.  
Eta orain errota-harriak ezin jok birarik egin,  
ezin jok ikerarik egin.

Joan zan basora, hartu eben leizar enbor\*bat  
eta ardatz barria ipini eutsan.

—KLIN-KLON, KLIN-KLON... —hasi zan barriro ere.  
Samartintxo, pozik. Baina,

—KLIN-KLON... KLASK! -egin eutsan ostera ere.

—Bigarrenez! —esan eben atsekabez.  
Eta mendi aldera begiraturik, basajaunak egozen aldera,  
hango errotak...

—TRIKITIN-TRAUKITIN... ebizela ikusi eben.

—Zein ete dök nire errakuntza? —inoan bere barruan.  
Eta herriko bati dei eginik

—Höä basajaunakana eta egiok sorotz —esan eutsan—  
Samartintxo-ren erroteak gelditu barik daragoiola\*esanez.

Joan zan bada, herritar hori, eurakana  
eta basajaun errotari bat aurkiturik

—Zer? Zelan gabizak, ba?

—Ibili... errotak jabizak hemen ibili!

—Baita Samartintxo-renak ere han daragoio gelditu barik!

—Ez, errota-harriari haltzezko\*ardatza ipini ez baleutsok!

Hori entzunaz,

—Ez, ez jotsak ipini —esan eben berekautan herritarrak—  
baina ipiniko jotsak!

Eta tximista baizen bizkor jatsi menditik  
eta berehala esan eutsan hori Samartintxo-ri  
Horrelan jakin eben ba, Samartintxok,  
haltza zala ardatzarako egur egokia.

Haltzaren ondoan\*haltza ernetan dan legez  
errotearen ondoan ere errotak egiten hasi ziran herrikoak  
eta apurka apurka Euskalerri osoa errotaz bete zan.

\* indarrean ipini = poner en marcha  
\* ardatza = eje  
\* zur =egur, madero

\* leizar enborra = tronco de fresno  
\* daragoiola = diharduala, dabillala  
\* haltza = aliso